

Estadistikako lan bat egin nahi denean eta jende askok parte hartzen duen gai bat ikertu, oso zaila da denen iritzia jasotzea. Eta ondorioz, arazo bat aurkitzen dugu: zer egin dezakegu askok parte hartzen duten gai bati buruz zerbait jakiteko, baina denei galdetu gabe?



Honelako kasuetan, estatistikan funtsezkoak diren kontzeptu bi bereizi behar dira: populazioa eta lagina.



Populazioa: aztertu nahi diren pertsona guztiak dira.

Lagina: inkesta egiteko eta euren iritzia jasotzeko aukeratu diren pertsonak dira.
Eta, jakina, dagoeneko konturatuko zinen lagina populazioa baino txikiagoa izaten dela.

Beste kontu hau ere erraz uler daiteke: zenbat eta handiagoa izan lagina orduan eta seguruago jakingo dugu inkestako emaitzak bat datozela denek pentsatzen dutenarekin.

Lagin bati egindako inkestako emaitzak ez dute zertan bat etorri behar biztanle guztiarekin egin ostean lortuko ziren emaitzekin; horregatik, beti komeni da lortutako emaitzak erlatibizatzea laginak erabiliz.

Unitate didaktiko honetan ikusi ditugun inkestetan lagin bat erabili dugu, oso zaila delako biztanle guztiak parte hartu ahal izatea mota honetako inkestan.

Beraz, elebidunek familian erabiltzen duten hizkuntza aztertzean ikusi dugu inkesta egiteko lagin batzuk hartu zirela oinarri moduan. Hurrengo taulan ikus daiteke hori.

Elebidunek familian erabiltzen duten hizkuntza, lurralde historikoaren eta hizkuntza-eremuaren arabera (% bertikala). 2006

	Euskal Herria	Euskal AE	Lurralde Historikoa			Nafarroa	Hizkuntza-eremua			Iparraldea
			Araba	Bizkaia	Gipuzkoa		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez euskalduna	
GUZTIRA (%)	100	100	100	100	100	100	100	-	100	
Laginaren tamaina (balio absolutuak)	2.254	1.391	284	551	556	566	252	271	-	297

❖ Euskal AEn 2 milioi pertsona inguru bizi badira, komunitate horretako zenbat biztanlek bete dute inkesta? Eman ehunekoa.

.....

❖ Lagina aukeratzeko ehuneko bera erabili bada Euskal Herri osoan, zure ustez zenbat biztanle daude guztira?

.....

❖ Lagina populazioa baino handiagoa izan da noizbait? Zergatik?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

❖ Bizkaian aukeratu den lagina Araban aukeratutakoa baino handiagoa da. Zergatik uste duzu egin dela hori?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....